

berria

16/05/2009

Ateak zabalik, parez pare

Bilboko Portuko egoitza erosi nahi du Azkunak Arte Eder museoa handitzeko.

Maiatzaren 18an egin izan da Museoen Nazioarteko Eguna, Museoen Nazioarteko Kontseiluak 1977an Moskun eginiko batzarrean halaxe erabakita. Aurten, ordea, astelehena egokitu da maiatzaren 18a, eta ospakizunak asteburura aurreratzea erabaki dute museo askok. Ekitaldi ugari prestatu dituzte gaurko eta biharko; musika emanaldiak eta umeentzako jolasak, esate baterako. Sarrera doan izango da, baita Bilboko Guggenheimen ere, lehen aldiz. Eta ordutegi ohi baino zabalagoak izango dituzte.

Araba

Dantza eta musikarekin ospatuko du Gasteizko Artium museoak asteburu osoan. Carmen Wernerrek zuzendutako Provisional Danza konpainiak Calle 4 obra eskainiko du gaur, museoaren barruko patioan. Zenbait koreografo gazte ere ariko dira ondoren, hala nola Maria Ibarretxe, Jorge Lastra, Izaskun Santamaria eta Natxo Montero. Juanjo Rubio, Rafa Galvez eta Juanjo Gillen musikariek perkusio saioa egingo dute bihar. Argazki lehiaketa ere antolatu dute bisitarien artean.

Bizkaia

Zure hurrengo osteratxoa... lelopean ospatuko dute bihar Bizkaiko hamazazpi museoek nazioarteko eguna. Denetan izango da doan sarrera, eta ohi baino bisita gidatu gehiago izango dira. Artelan Berreginen Bilboko Museoan, esaterako, era askotako pertsonaiek lagunduko dituzte bisitariak aretoetan barrena. Arte Ederrek Museoaren Lagunen bost txartel zozkatuko ditu bihar museora batzen direnen artean. Eta berriki irekitako Arkeologia Museoak egitarau oparoa izango du, gaurtik hasita. Museoen Gauda egingo du Bilbon kokaturiko zentroak, Gernikako Euskal Herria museoak eta Bakearen Museoak bezala. Musika emanaldiak, hitzaldiak eta afari bereziak antolatu dituzte gaur gauerako.

Gipuzkoa

Aquariumean eta Kutxagunean ez beste museo guztietan doakoa izango da sartzea. Azken horretan, nitrogenoa ardatz duen umeentzako lehiaketa egingo dute bihar goizean. Cemento Rezola museoan, bestalde, porlana nola egiten den erakutsiko dute fabrikako langile ohiek. San Telmo museoak familian jokatzeko jinkana antolatu du; parte-hartzaileak Donostiako punta batetik bestera ibiliko dira, Urgull mendira ere iritsiz. Ekainberrin ere eskaintza zabala izango da; garai hartako gizakiek zer-nolako bizimodua zuten ezagutzeko aukera izango da, erakustaldi eta tailerren bidez.

Donostiako Eliz Museoa ere irekiko dute bihar; itxita egon ohi da, eta aurrez hitzartuta bakarrik sar daiteke. Txillida Lekun ere bisita bereziak egingo dituzte.

Lapurdi

Europako Museoen gauaren kariatara, Kanboko Arnaga eta Baionako Bonnat museoa gauaz eta urririk bisitatzeko parada emanen dute. Bosgarren aldia da Europa osoan antolatzen dutela horrelako saioa, eta lehen urtea da Unescok babesten duela. Museoen Nazioarteko Egunarekin hain hurbil izatea ez da kasualitatea. Elkarri oihartzun egitea dute xede, eta horregatik partaidetza daukate. Usaian museoetara joaten ez den publikoa erakarri nahi dute, tartean, gazteak. Bonnat museoan, behin betiko margolan eta eskultura klasikoez gain, Eric Poitevin argazkilariaren Hil ala bizirik, egia harrapatua erakusketa aurkituko du bisitariak.

Nafarroa

Jorge Oteizaren poesia aztertuko du Carlos Aurtenetxe idazleak Alzuzako museoan gaur emango duen hitzaldian. Sarrera doan izango da Oteiza museoan asteburu osoan, baita bisita gidatuak ere. Nafarroako Museoan ere bisita bereziak izango dira; antzerkiz lagundurik erakutsiko diete museoa joaten diren umeei.

Bilboko Portuko egoitza erosi nahi du Azkunak Arte Eder museoa handitzeko

Bilboko Portuko egoitza erosi nahi du Iñaki Azkuna Bilboko alkateak, Arte Eder museoa handitzeko. Campo Volantin pasealekuan kokaturiko Olabarri jauregian dago Bilboko Portuko gaur egungo egoitza, baina aurki Portugaleten irekiko dute berria. Jose Blanco Espainiako Gobernuako Sustapen ministroa Azkunarekin izan zen atzo, Bilbon, eta alkateak eskaera garbia egin zion: Olabarri jauregia Bilboko Udalari saltzea. Arte Eder museoa handitzeko gune egokia iruditzen zaio Azkunari, eta aurreratu du dagoeneko elkarrizketa batzuk izan dituela Portuko Agintaritzako presidentearekin eta Estatuko idazkariarekin. Arte Eder museoa txiki geratu dela uste du alkateak. Izan ere, 200dik gora obra daude sotoan gordeta. Krisia gainditutakoan, museoa handitzeko proposatuko die Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari

Irune Berro